


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

URBIETA 11



Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1891
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi bi jasodura: lehena, 1933koa, fatxada planoan (segur aski jatorrizko estalkipe edo oin mantsardatu baten eraldaketa gisa), eta bigarrena, 1935ekoa, txapituladun estalkipe moduan. Harlanduzko fatxada goi oinetan, eta zurezko begiratokiak ditu txandakako baotan. Behe oineko fatxada, gaur egun, kareharri lauz estalia dago irizpide bateratuarekin. Konposizio simetrikoa, bao zentrolean balkoirik ez duela nabarmenduz.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 6. goi oin mantsardatuko jasodura.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.

* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.